



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

# LAN-MERKATUAREN ERROLDA 2017

*ESKUALDEEN ARABERAKO EMAITZA NAGUSIAK*

*2018eko irailaren 21a*

*Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika  
Organo Espezifikoa*





## SARRERA

Dokumentu honetan, 2017ko Lan Merkatuaren Erroldaren (LME) emaitza nagusiak biltzen dira, jarduerari, enpleguari eta langabeziari buruzkoak.

Eskaintzaren azterketan, LMEren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen lan-indarra ezagutzea da, lurralde historikoa baino txikiagoak diren eskualdeetan sailkatuta. Horretarako, LANEK jarduera eta harremanaren azterketarako emandako hurbilketa erabili da.

Azterketa hauen bidez, LMEk BAI edo Biztanleria Aktiboaren Inkesta eta BJA edo Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesten informazio orokorra osatzen du lurralde historiko edo autonomia erkidegoa baino txikiagoak diren eskualdeetarako. Zehazki, jarduera, okupazioa eta langabeziari buruzko informazioa ematen du eskualdeka eta azpieskualdeka, EAEko udalerrri populatuena ere barne hartuz.

Lan Merkatuaren Errolda BJA inkestaren urteko azken hiruhilekoan egiten da, eta uneko egoera islatzen du. Emandako informazio guztia, beraz, urte bakoitzeko azken hiruhilekoari dagokio.

Izenak bestelakorik iradoki dezakeen arren, arrazoi historikoengatik gordetzen da, LME lagin bidezko operazioa da gaur egun eta lagina 12.500 etxebizitzakoa izan da, gutxi gorabehera (2017-2019ko taularen oinarria).

LMEren esplotazio estatistikoak 16 eta 64 urte arteko populazioa du ardatz, baina 65 urtetik gorako pertsona okupatuei buruzko informazioa ere eskuragarri dago. 2017ko lagina osatzen duten 16 eta 64 urte arteko pertsonak 17.816 dira (65 urte baino gehiago izan eta okupatuta daudenak barne).

Emaitza nagusiak biltzen dituen txostenarekin batera doan Eranskin Estatistikoaren amaieran LME egiteko erabiltzen diren 11 eskualde nagusiei buruzko informazio zehatza ematen da. Era berean, 11 eskualde horien zatiketarik eratorritako 40 azpieskualdeei buruzko informazioa ere bertan dago jasota.

2015etik, LME datuen estimazioa BAI berrian erabilitako doitze eredu jasotzailearekin bat dator, Eustateko lan honetan ezarritako metodologiarekin bat etorritik. 2015 urtea baino lehenagoko datuak BAI metodologia aplikatzen denekoa baino aurreragoko bertsioei dagokie.

# I.- OKUPAZIOAREN EBOLUZIOA

## 1. Okupazioaren goranzko lerroa orokorra izan zen 2015etik 2017ra bitarte, Aiaraldean izan ezik.

1.a taulan ikusten da nolako eboluzioa izan duen okupazioak EAEko eskualdeetako 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleen artean. Taula horretan, 2007tik 2013ra artean okupatuta zeuden biztanleen zifra absolutuak jaso dira, bi urtez behingo datuekin. Era berean, 2013tik aurrera eskuragarri dauden urteko datuak ere jaso dira (2014, 2015 eta 2017). Bestalde, taulan ikusten da aldi bakoitzean nolakoa izan den urteko batez besteko aldakuntza-tasa, ehunekotan.

1.a. Taula

### Okupazio adierazleak eskualdeka Euskal Autonomia Erkidegoa. 2007-2017

	16tik 24 urtera bitarteko biztanle okupatuak Datu absolutuak							Urteko batez besteko aldakuntza-tasa %-tan					
	2007	2009	2011	2013	2014	2015	2017	2007/9	2009/11	2011/13	2013/14	2014/15	2015/2017
Eskualdeak	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	%	%	%	%	%	%
<b>Guztira</b>	<b>970.957</b>	<b>947.259</b>	<b>924.295</b>	<b>886.256</b>	<b>880.728</b>	<b>887.864</b>	<b>910.965</b>	<b>-1,23</b>	<b>-1,22</b>	<b>-2,08</b>	<b>-0,62</b>	<b>0,81</b>	<b>1,29</b>
Gasteiz	124.625	123.998	121.889	116.084	117.690	117.227	119.755	-0,25	-0,85	-2,41	1,38	-0,39	1,07
Aiaraldea	19.944	19.109	19.993	17.075	17.666	17.669	17.337	-2,12	2,29	-7,59	3,46	0,01	-0,94
Eskuinaldea	72.626	70.721	70.745	66.135	64.326	65.172	67.240	-1,32	0,02	-3,31	-2,74	1,31	1,57
Bilbao	150.399	149.887	138.041	134.921	129.726	131.202	136.298	-0,17	-4,03	-1,14	-3,85	1,14	1,92
Ezkerraldea	170.931	168.679	162.470	149.954	149.170	154.196	155.817	-0,66	-1,86	-3,93	-0,52	3,37	0,52
Bizkaia-Kosta	54.778	53.921	52.291	53.345	53.806	54.413	56.511	-0,79	-1,52	1,00	0,87	1,13	1,91
Durungaldea	55.213	51.804	52.685	52.403	52.484	53.219	53.611	-3,14	0,85	-0,27	0,15	1,40	0,37
Donostialdea	217.074	210.520	205.913	198.772	198.086	197.689	202.928	-1,52	-1,10	-1,75	-0,35	-0,20	1,32
Tolosa-Goierri	52.150	48.942	49.399	48.686	48.949	48.739	50.638	-3,12	0,47	-0,72	0,54	-0,43	1,93
Debagoiena	29.259	27.398	27.928	26.091	26.535	26.000	27.337	-3,23	0,96	-3,34	1,70	-2,02	2,54
Debarrena	23.958	22.280	22.941	22.790	22.288	22.338	23.492	-3,57	1,47	-0,33	-2,20	0,22	2,55

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

Daturik nabariena da okupazioaren lerroa goranzkoa dela 2015etik 2017ra artean; salbuespen bat baino ez dago, Aiaraldea. Nolanahi ere, okupazioaren dinamikan alde garrantzitsuak daude eskualdeen artean, eta jarraian emango da horien berri.

### Okupazioa Deba bailarako eskualdeetan hazi zen gehien, eta Tolosa-Goierri zein Bizkaia Kostan ere nabarmen areagotu zen.

2015etik 2017ra bitartean, okupazio-tasak Deba bailarako eskualdeetan hazi ziren gehien; batez beste, urteko aldakuntza-tasa positiboa % 2,55eko izan zen Debarrenean, eta % 2,54koa Debagoiengan. Bi eskualde horietan, zifra horiekin argi ikusten da okupazioak nabarmen gora egin



zuela 2014-2015eko kontrako dinamikaren ostean; izan ere, garai horretan okupazioa % 0,22 baino ez zen handitu Debabarrenean, eta % 2,02 egin zuen behera Debagoiengan.

Bestalde, Gipuzkoako Tolosa-Goierri eskualdean ere urte batetik bestera handi samarra izan zen batez besteko hazkuntza-tasa (% 1,93 areagotu zen), nahiz eta Deba bailarakoa baino txikiagoa izan. Bizkaia Kostako tasa ere aipatzeko modukoa da (% 1,91). Bertan, tasa horrekin berretsi egiten da 2014tik 2015era artean ere izandako hazkuntza-lerro positiboa (% 1,13). Tolosa-Goierriin, berriz, Debako eskualdeen antzera, 2015-2017ko zifrekin ikusten da okupazioa argi berpizten ari zela, batik bat 2014-2015eko % 0,43ko beherakada kontuan hartuta.

**Hiriburuetakoko eskualdeetan, ordea, Bilbon soilik ikusten dira eskualde horien antzerako okupazioaren hazkuntza-tasak. Hala ere, Donostialdea eta Gasteiz suspertu egin dira 2014-2015eko beherakaden ostean.**

Hiriburuetakoko eskualdeetan, urteko hazkuntza-tasa % 1,92koa izan zen 2015etik 2017ra bitarte, batez beste. Bilboko tasak EAEn okupazioa gehien hazi zen eskualdeetako tasen parekoak ziren. Bertako okupazioaren eboluzioa eta Bizkaia Kostakoa antzekoak dira; izan ere, okupazioa % 1,14 areagotu zen 2014tik 2015era artean, eta Bizkaia Kostakoa ere bertsua izan zen garai horretan.

Eboluzioa ez zen horren aldekoa izan beste hiriburuetakoko eskualdeetan: Donostialdean, eta batez ere, Gasteizen. Alabaina, okupazioa nola aldatu zen adierazteko lerroa positiboa da 2015etik 2017ra artean. Zehatz-mehatz, urte batetik besterako batez besteko hazkuntza-tasa % 1,32 izan zen Donostialdean. Tolosa-Goierriin eta Debagoiengan bezalaxe, Donostialdean ere hautsi egin zen 2014-2015eko dinamika negatiboa, garai hartan okupazioak % 0,20 egin baitzuen behera. Gasteizen ere joera antzekoa izan zen. Izan ere, okupazioa % 0,39 txikiagotu zen 2014-2015ean, baina hortik aurrera, 2015etik 2017ra bitarte, gora egin zuen urtez urte, % 1,07.

Eskualde urbanizatuenetan, urteko batez besteko hazkuntza-tasa % 1,57koa izan zen Eskuinaldean, 2015etik 2017ra artean. Hortaz, Donostialdekoa eta Gasteizkoa baino tasa handiagoa izan zuen. Azken aldian, Eskuinaldeko okupazioa areagotu den erritmoa motelagoa izan da Bilboko baino. Haatik, gogoan izan behar da okupazioak nolako dinamismo handia izan zuen 2014-2015ean, % 1,31 areagotu baitzen, eta Bilbon, % 1,14, ordea.

**Kontrako dinamika nabariak Ezkerraldekoa, Durangaldekoa eta Aiaraldekoak izan ziren; ez alferrik, okupazioak behera egin zuen Aiaraldean.**

Eskualde urbanizatuenen artean, 2015etik 2017rako dinamismo txikiena Ezkerraldekoa izan zen, urtean okupazioa % 0,52 handitu zen eta. Horren antzera, Durangaldeko okupazioaren batez besteko hazkuntza-tasa % 0,37koa besterik ez zen izan.

Bi eskualde horietan, okupazioaren 2015-2017ko dinamika kezkatzeko modukoa da. Durangaldean, okupazioa oso gutxi hazi zen 2013-2014an (% 0,15). Ondoren, 2014tik 2015era bitarte, % 1,40 areagotu zen, ordea; eta azkenik, 2015-2017ko aldaketa ikusita, ematen du okupazioaren dinamiko ia egonkortu zela, gutxi-gutxi egin baitzuen aurrera (% 0,37). Ezkerraldeko egoeran ere ez dago argi. Okupazioa % 3,37 areagotu zen 2014tik 2015era, baina desazelerazio nabaria gertatu zen 2015-2017an, urteko batez besteko hazkuntza % 0,52 izan baitzen.

Dena den, eboluziorik txarrena Arabako Aiaraldekoa da. Zehazki, okupazioak % 3,46 gora egin zuen 2013-2014an, baina egonkortu egin zen 2014an eta 2015ean (% 0,01); 2015ean eta 2017an, aldiz, okupazioak % 0,94 behera egin zuen urtean, batez beste. Beherakada hori deigarria da; batetik, okupazioa areagotzen ari zen EAeko gainerako tokietan, eta bestetik, oso beherakada bizia izan zen.

### **Datuak azpieskualdeka**

Okupazioaren 2015etik 2017ra bitarteko zifrak azpieskualdeen arabera aztertzen direnean, okupazioa lurralde bakoitzean nola aldatu den ikusten da.


Dinamikarik onena izan duten tokietan, okupazioa % 3,5etik gora hazi zen 2015etik 2017ra artean. Bizkaian, hala gertatu zen Bilbo, Basauri, Galdakao eta Getxo udalerrietan, eta Arratia-Nerbioi, Markina-Ondarroa eta Plentzia-Mungia azpieskualdeetan. Orobat, 2015-2017an okupazioa % 2tik gora areagotu zen Barakaldon, Leioan eta Erandion. Halaber, Gernika-Bermeon eta Durangaldeko gainerako udalerrietan okupazioa ia % 2 hazi zen.

Gipuzkoan, bestalde, 2015etik 2017ra bitarte, okupazioa % 3,5 baino gehiago areagotu zen Arrasaten, Donostian, Zarautzen eta Goierriko azpieskualdean. Debagoieneko gainerako tokietan eta Hondarribian, berriz, % 2tik gora areagotu zen, eta Irunen, Errenterian, Tolosaldean eta Urola Kostako gainerakoan, aldiz, % 1 baino gehiago.

Arabian, 2015-2017an, okupazioa % 3,5etik gora hazi zen Arabako kuadriletan, Lautadako gainerakoan eta kantauriar isurialdearen gainerakoan. Gasteizen, aldiz, okupazioak % 2 baino gehiago egin zuen gora.

Aipatutako lurraldeetan ez bezala, EAeko azpieskualde batzuetan okupazioaren dinamika kaskarra izan zen, okupazioak behera egin zuen eta. Nagusiki, egoera horretan daude Bizkaiko Durango, Portugalete, Santurtzi eta Sestao udalerriak, eta Enkarterri zein Eskuinaldeko gainerakoa azpieskualdeak. Arabian, horixe gertatu zen Audio udalerrian eta Arabako Mendialdea, Arabako Errioxa eta Gorbeialdea azpieskualdeetan. Bestalde, nahiz eta 2015etik 2017ra bitartean okupazioak ez zuen behera egin Bizkaiko Eskuinaldearen gainerakoan eta Gipuzkoako Donostialdearen gainerakoan, % 1 baino gutxiago handitu zen.

## Okupazioaren aldaketa ehunekotan 2015 eta 2017 urteetan azpiekualdeka. EAE



1.- Arabako bailarak	11.- Eskuinaldeko gainerakoa	21.- Erandio	31.- Eibar
2.- Arabako Lautadako gain.	12.- Barakaldo	22.- Durangaldeko gainerakoa	32.- Debagoiena
3.- Gasteiz	13.- Basauri	23.- Durango	33.- Arrasate
4.- Arabako mendialdea	14.- Bilbao	24.- Enkarterri	34.- Donostialdeko gainerakoa
5.- Arabako Errioxa	15.- Galdakao	25.- Gernika-Bermeo	35.- Erreterria
6.- Gorbeialdea	16.- Getxo	26.- Markina-Ondarroa	36.- Donostia
7.- Arabako Kantaurialdeko g.	17.- Leioa	27.- Plentzia-Mungia	37.- Goierri
8.- Audio	18.- Portugalete	28.- Hondarribia	38.- Tolosaldea
9.- Arratia-Nerbioi	19.- Santurtzi	29.- Irun	39.- Urola Kosta, gainerakoa
10.- Ezkerraldeko gainerakoa	20.- Sestao	30.- Debabarreneko gainerakoa	40.- Zarautz

Oharra: Honako udalerrri hauen zenbakia ez da mapan agertzen: Getxo, Leioa, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Basauri. Udalerrri horien eta gainerako azpieskualdeen datuak SC5 taulan ikus daitezke (62. orrialdea)

### Okupazioa 2017an suspertu zen EAEko eskualdeetan, baina 2007koa baino txikiagoa izan zen oraindik ere, Bizkaia Kostan izan ezik.

Nahiz eta azken aldian enpleguak hobera egin duen, 2017ko okupazioa txikiagoa izan zen 2007koa baino EAEko ia eskualde guztietan, Bizkaia Kostan izan ezik. Bertan, okupazioa % 5 handitu zen 2013tik 2017ra bitartean, eta horren bidez konpentsatu egin zen 2007tik 2014ra arteko % 1,8ko beherakada. Nolanahi ere, 2014tik aurrera nabaritu zen okupazioa suspertzen hasia zela, eta horrek neurri handian mugatu zuen beherakada hori. Hartara, Bizkaia Kostako 2017ko okupazioa % 3,2 handiagoa izan zen 2007koa baino.

Zenbait eskualdetan, 2017ko okupazio txiki hori (2007koaren aldean) EAEko batezbestekoa baino % 6,2 txikiagoa izan zen. Halaxe gertatu zen Gasteizen (-% 3,9), Bizkaiko Durangaldean (-% 2,9), eta Gipuzkoako Debabarrenean (-% 1,9) eta Tolosa-Goierrin (-% 2,9). Alabaina, eskualde horietan okupazioak gora egin zuen 2014-2017an, EAEko % 3,4ko batezbestekoa, ia-ia. Egoera horretan egon zen Tolosa-Goierrin (% 3,5), baina hura baino nabarmen txikiagoa izan zen Durangaldean eta Gasteizen (% 2,1 eta % 1,8, hurrenez hurren). Hala ere, Debabarrenean okupazioa % 5,4 areagotu zen 2014tik 2017ra, eta hangoa soilik izan zen EAEko batezbestekoa baino handiagoa.

Donostialdean, Debagoienean eta Ezkerraldean, aitzitik, 2017ko okupazio txikia (2007koaren aldean) EAEko batezbestekoa baino handiagoa izan zen, beherakadak -% 6,5 eta -% 7,4 artekoak izan baitziren. 2014tik 2017ra bitarteko okupazioa Eskuinaldean soilik areagotu zen EAEko batezbestekotik gora; zehatz-mehatz, % 4,5 izan zen, Debagoieneko % 3 eta Donostialdeko % 2,4 baino handiagoa. Kontuan hartu behar da, dena den, Debagoieneko okupazioak krisi handia izan zuela 2014-2015ean.

Bestalde, 2007tik 2017ra bitarte, okupazioak gehien egin zuen behera Ezkerraldean (-% 8,8), Bilbon (-% 9,4) eta Aiaran (-% 13,1). Ezkerraldeko eta Bilboko egoera bestelakoa da, ordea; 2014tik 2017ra bitarte, okupazioa % 4,5 eta % 5,1 hazi zen, hurrenez hurren, EAEko batezbestekoa % 3,4 izanik. Aiaran, aitzitik, okupazioa % 1,9 txikiagotu zen 2014tik 2017ra artean; horrenbestez, 2007-2014ko krisiak eragindako ildo negatibotik jarraitu zuen.

#### 1.b.Taula

##### **2007 eta 2017 artean okupazioaren %aren aldakuntza eta bere fase ezberdinak. EAE**

	2007/2013	2013/2017	2007/2017
Eskualdeak	%	%	%
<b>Guztira</b>	<b>-9,3</b>	<b>3,4</b>	<b>-6,2</b>
Bizkaia-Kosta	-1,8	5,0	3,2
Debabarrena	-7,0	5,4	-1,9
Tolosa-Goierrin	-6,1	3,5	-2,9
Durangaldea	-4,9	2,1	-2,9
Gasteiz	-5,6	1,8	-3,9
Donostialdea	-8,7	2,4	-6,5
Debagoiena	-9,3	3,0	-6,6
Eskuinaldea	-11,4	4,5	-7,4
Ezkerraldea	-12,7	4,5	-8,8
Bilbao	-13,7	5,1	-9,4
Aiaraldea	-11,4	-1,9	-13,1

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda





## 2. EAEko okupazio handieneko eskualdeak Debagoiena eta Tolosa-Goierri izan ziren. Bilbo, Ezkerraldea eta Aiara beste muturrean daude.

Okupazio handieneko EAEko eskualdeak Debagoiena eta Tolosa-Goierri izan ziren. Izan ere, 2015ean, 16tik 64 urtera arteko biztanleen % 71,6 eta % 70,1 okupatuta zeuden, hurrenez hurren.

Hortaz, Debagoiena eta Tolosa-Goierri dira EAEko eremu batzuetan krisiaren aurretik zegoen % 70eko okupazioa gainditu zuten eskualde bakarrak. Nolanahi ere, Debabarrena eta Durangaldea gertu-gertu daude, % 69,6ko eta % 69,4ko okupazioarekin, hurrenez hurren. Alabaina, Durangaldeko okupazio-koefizientea beste eskualde batzuetan baino gutxiago hazi zen 2015-2017an (ehuneko 0,8 puntu), eta 2015ean koefizienterik altuena izan bazuen ere, 2017an Gipuzkoako hiru eskualde horiek gainditu egin zuten. Ez alferrik, azken biurtekoan, bertako okupazioa nabarmen areagotu zen. Zehatz-mehatz, 2015-2017an okupatuta zeuden biztanleen proportzioa ehuneko 1,7 puntu areagotu zen Tolosa-Goierriin, 3,2 puntu Debabarrenean, eta 3,8 puntu Debagoienean.

Beste eskualde bat % 70etik gertu egon zen 2017an: Bizkaia Kosta. Izan ere, okupatuta zeuden biztanleen proportzioa 2,3 puntu areagotu zen 2015etik 2017ra artean, eta azken urte horretan % 68,7koa izan zen

### 2. Taula

#### Okupatuta dauden 16 eta 64 urte arteko biztanleen portzentajea eskualdeka (okupazio-koefizientea). 2015 eta 2017. Euskal Autonomia Erkidegoa

	2015	2017
Eskualdeak	%-tan	%-tan
<b>Guztira</b>	<b>64,7</b>	<b>66,4</b>
Debagoiena	67,8	71,6
Tolosa-Goierri	68,4	70,1
Debabarrena	66,4	69,6
Durangaldea	68,6	69,4
Bizkaia-Kosta	66,4	68,7
Donostialdea	66,1	67,3
Gasteiz	65,4	67,1
Eskuinaldea	63,6	66,2
Aiaraldea	64,9	64,3
Ezkerraldea	62,8	64,0
Bilbao	61,0	63,0
Debabarrena eta Bilboren arteko alderdia	6,8	8,7

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

Eskuinaldea, Gasteiz eta Donostialdea tartean geratu ziren 2017an, bertako okupazioa % 66,2tik % 67,3 artekoa izan baitzen. Eskualde horien artean, okupazioa Eskuinaldean areagotu zen gehien biurteko horretan (ehuneko 2,7 puntu); Gasteizen, 1,7 puntu, eta Donostialdean, 1,2 puntu. Eboluzio

horrekin, Eskuinaldea aldendu egin da 2015eko egoeratik, garai horretako okupazioa txikiagoa izan baitzen gerokoa baino. Aitzitik, Donostialdea eta Gasteiz 2007ko zifretatik urrun daude oraindik, orduan % 70,8 eta % 69,2 izan baitziren, hurrenez hurren.

Kontrako muturrean, okupatuta zeuden biztanleen proportzio txikienak Bilbon eta Ezkerraldean zeuden, % 63 eta % 64ko okupazio-koefizienteekin. Okupazio-aldaketei begiratzen badiegu, aitzitik, ikusten da Bilbon ehuneko bi puntu areagotu zela 2015eko % 61ekin alderatuta, EAEko batez besteko 1,7tik gora. Hartara, Bilboren eta Ezkerraldearen arteko distantzia txikiagoa izan zen lehenago baino, Ezkerraldeko okupazio-koefizientea 1,2 puntu hazi baitzen 2015etik aurrera.

Hala eta guztiz ere, Debagoieneko okupazioak zeharo aurrera egin zuenez azken bi urteetan, adierazleetan handitu egin da Bilborekiko distantzia. Izan ere, 6,8 puntuko tartea zegoen Debagoienaren alde, baina bi eskualdeen okupazio-koefizienteen arteko aldea dela eta, 2017an tartea 8,7 puntukoa izan zen. Hortaz, EAEko eskualdeen arteko okupazio-aldeak handitu egin ziren 2015-2017 biurtekoan.

Bestalde, Aiaran okupatuta zeuden biztanleen proportzioa % 64,9koa izan zen 2015ean, eta % 64,3ra pasatu zen 2017an. Hori dela eta, EAEko okupazio txikiena Aiaraldekkoa zen. Beraz, urrun gelditu da Aiaran 2007an lortutako % 71ko okupazioa.

## **Datuak azpieskualdeka**


Desberdintasunak are argiagoak dira okupazio-koefizienteak azpieskualdeka aztertzerakoan. Eskualde-historia bakoitzaren aldaerak islatzeaz gain, okupazioaren eta sortzen ari den enpleguaren arteko dibergentziaren isla ere dira.

2017an okupazio-koefiziente handienak izan zituzten eskualdeak (% 67,5 edo hortik gorakoak) hiru lurraldetakoak dira. Gipuzkoan, Hondarribia, Donostia, Zarautz, Eibar eta Arrasate udalerriak talde horretan daude, eta Tolosa-Goierriko, Debagoieneko eta Debabarreneko azpieskualdeak. Urola Kostako gainerakoa ere talde horretan dago. Basauri udalerriak aipatu atalasea gainditzen du, baina hori alde batera utzita, gutxien urbanizatuta dauden Bizkaiko eta Arabako azpieskualde hauek soilik sartzen dira: Bizkaian, Plentzia-Mungia, Eskuinaldearen gainerakoa, Gernika-Bermeo, Arratia-Nerbioi eta Durangaldearen gainerakoa; eta Araban, kuadrillak, Gorbeialdea, Lautadako gainerakoa eta Mendialdea.

Tartean, Gipuzkoako Errenterian eta Donostialdean, eta Arabako Gasteizen eta Arabako kantauriar isurialdeko gainerakoan, okupazio-ehunekoak % 65 eta % 67,4 artekoak dira. Bizkaian, berriz, egoera berean daude Portugalete, Getxo, Erandio, Galdakao eta Durango udalerriak, eta Markina-Ondarroa zein Ezkerraldearen gainerakoa azpieskualdeak.

Azkenik, % 65etik behera daude Bizkaiko hainbat udalerrri (Bilbo, Leioa, Barakaldo, Santurtzi eta Sestao) eta Enkarterriko azpieskualdea. Araban, Laudio eta Arabako Errioxa talde horretan daude. Gipuzkoan, Irun udalerrria soilik dago okupatuta dauden 16 eta 64 urte arteko biztanleen proportzio txikiena duten EAeko azpieskualdeen artean.

### 2017ean okupatuta dauden 16 eta 64 arteko biztanleen ehunekoa azpieskualdeka. EAE



1.- Arabako bailarak	11.- Eskuinaldeko gainerakoa	21.- Erandio	31.- Eibar
2.- Arabako Lautadako gain.	12.- Barakaldo	22.- Durangaldeko gainerakoa	32.- Debagoiena
3.- Gasteiz	13.- Basauri	23.- Durango	33.- Arrasate
4.- Arabako mendialdea	14.- Bilbao	24.- Enkarterri	34.- Donostialdeko gainerakoa
5.- Arabako Errioxa	15.- Galdakao	25.- Gernika-Bermeo	35.- Errenteria
6.- Gorbeialdea	16.- Getxo	26.- Markina-Ondarroa	36.- Donostia
7.- Arabako Kantaurialdeko g.	17.- Leioa	27.- Plentzia-Mungia	37.- Goierri
8.- Laudio	18.- Portugalete	28.- Hondarribia	38.- Tolosaldea
9.- Arratia-Nerbioi	19.- Santurtzi	29.- Irun	39.- Urola Kosta, gainerakoa
10.- Ezkerraldeko gainerakoa	20.- Sestao	30.- Debabarreneko gainerakoa	40.- Zarautz

Oharra: Honako udalerrri hauen zenbakia ez da mapan agertzen: Getxo, Leioa, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Basauri. Udalerrri horien eta gainerako azpieskualdeen datuak SC2 taulan ikus daitezke (59. orrialdea)

## II. LANGABEZIAREN EGOERA

### 1. Aldaketen eragina biztanleria osoan eta jarduera-datuetan

Okupazioaren aldaketak, positiboak ala negatiboak izan, ez dira langabezia eragina duten faktore bakarrak. Zenbait kasutan, garrantzi handia izan dezakete biztanleria osoaren eta biztanleria aktiboaren datuetan gertatutako mugimenduek. Hori horrela izanik, 2015 eta 2017 artean, EAEn biztanleriaren dinamika orokorrari eta jarduerari eragiten dioten faktore batzuk izan ditugu eta oso esanguratsuak dira langabeziaren zenbakietan izandako aldaketak ulertzeko. Aipatu diren mugimenduak 3. eta 4. taulatan laburbildu dira.

Jaiotza-tasa 70eko hamarkadaren amaieran hasi zen txikiagotzen, eta horri jarraituz, 2014-2015ean 16tik 64 urtera bitarteko 8.154 biztanle gutxiago zeuden EAEn lehenago baino; haatik, 3. taulan ikustenenez, 2015-2017an immigrazio-prozesuek neurri batean konpentsatu zuten beheranzko lerro hori, eta 16tik 64 urtera bitarteko biztanleriak gora egin zuen (622 pertsona gehiago).

#### 3. Taula

**Langabeziaren eboluzioan eragina duten aldakuntza-faktoreak eskualdeka 2015-2017**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa**  
 (Datu absolutuak)

Eskualdea	Aldaketa 16-64 urtekoak	Aldaketa Aktiboak	Aldaketa Okupatuak	Aldaketa Langabeak	2015etik aldakuntza %
<b>Guztira</b>	<b>622</b>	<b>-17.000</b>	<b>23.100</b>	<b>-40.100</b>	<b>-25,9</b>
Gasteiz	-705	-3.236	2.528	-5.763	-28,9
Aiaraldea	-247	-831	-331	-500	-16,6
Eskuinaldea	-995	-3.538	2.068	-5.606	-38,4
Bilbao	1.349	6.991	5.095	1.895	8,1
Ezkerraldea	-2.022	-5.104	1.621	-6.726	-21,3
Bizkaia-Kosta	270	-1.822	2.098	-3.920	-43,1
Durangaldea	-316	-3.128	392	-3.520	-39,4
Donostialdea	2.335	-4.162	5.239	-9.401	-31,2
Tolosa-Goierrri	1.022	-851	1.899	-2.750	-43,5
Debagoiena	-165	-290	1.337	-1.628	-50,4
Debarrena	96	-1.028	1.154	-2.182	-47,9

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

Alabaina, nahiz eta jarduera-tasak egonkorrak izan ziren 2014tik 2015era artean, nabarmentzekoa da 2015-2017an beherantz egiten duela jarduerarako joeraren lerroak, eta hori EAeko ia eskualde guztietan ikusten da. Hala, 4. taulan ikustenenez, EAeko jarduera-tasa % 76koa izan zen 2015ean, eta 2017an, berriz, % 74,7koa. Alegia, ehuneko 1,27 puntu txikiagotu zen



## 4. taula

**Jarduera-tasaren aldaketa 2015 eta 2017 artean, eskualdeka. EAE.**  
(Jarduera-tasa %-tan eta aldakuntza-tasak ehunekotan)

Eskualdea	2015	2017	2015-2017 aldakuntza
<b>Guztira</b>	<b>76,0</b>	<b>74,7</b>	<b>-1,27</b>
Gasteiz	76,5	75,0	-1,51
Aiaraldea	76,0	73,6	-2,39
Eskuinaldea	77,8	75,1	-2,72
Bilbao	71,9	74,6	2,78
Ezkerraldea	75,6	74,2	-1,47
Bizkaia-Kosta	77,5	75,0	-2,47
Durangaldea	80,1	76,4	-3,72
Donostialdea	76,2	74,2	-1,97
Tolosa-Goierri	77,3	75,0	-2,27
Debagoiena	76,2	75,8	-0,43
Debarrena	79,9	76,7	-3,27

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

Biztanleria egonkorra denean jarduera-tasa txikiagotzen bada, biztanleria aktibo osoak nabarmen egiten du behera; EAEn, zehazki, beherakada 17.000 pertsonakoa izan zen. Pertsona gutxiago daudenez, okupazioaren igoeraren eragin positiboa areagotu egiten da; izan ere, +23.100 pertsona okupatu gehiago izanik, langabeak 40.100 gutxiago dira. Horren eraginez, langabeen bolumena % 25,9 txikiagotu zen 2015etik 2017ra bitarte.

Eskualdeen harira, langabezia-zifrak txikiagotzeko aldeko egoera ikusten da Eskuinaldean, Bizkaia Kostan, Durangaldean eta Debarrenean. Izan ere, kontuan hartu behar da langabeziak behera egitea jarduera ere txikiagotzearekin lotuta dagoela, eta horren ondorioz, biztanleria aktiboaren bolumenak nabarmen egiten du behera. Eskualde horietan guztietan, jarduera-tasa ia 2,5 puntu edo gehiago murriztu da, eta mesedegarri gertatzen da okupazio-zifren igoerak duen eragina nabarmentzeko, 16tik 64 urtera bitarteko biztanleria egonkortu den edo txikiagotu den testuinguruetan. Eskualde horietan, langabezia 2015-2017 biurtekoan jaitsi zen gehien; zehazki, – % 38,4 Eskuinaldean eta –% 47,9 Debarrenean. Beste eskualdeen aldean, okupazioa neurri txikiagoan handitu zen eskualdeetan ere langabezia nabarmen txikiagotu zen; horixe gertatu da Durangaldean, hain zuzen ere.

Halaber, aipatzekoa da Tolosa-Goierriko jarduera-tasa 2,3 puntu txikiagotu zela 2015etik 2017ra artean, eta langabeziak % 43,5 behera egin zuen. Nolanahi ere, kasu honetan kontuan hartu behar da 16tik 64 urtera bitarteko biztanleriak oso era nabarmenean egin zuela gora garai horretan, eta horrek eragina du biztanleria aktiboaren bolumena txikiagotzeko. Donostialdea eskualdeko eboluzioa antzekoa izan da. Izan ere, jarduera-tasa 2,0 puntu txikiagotu zen, nahiz eta 16tik 64 urtera bitarteko

biztanleria handitzeak neurri batean konpentsatu zuen. Tolosa-Goierri eskualdearen aldean, okupazioak ez du hain eboluzio ona izan, eta hori langabeziaren beherakadan islatzen da, txikiagoa izan baitzen (-% 31,2).

Gasteizko eta Ezkerraldeko eskualdetan, jarduera 2015-2017 biurtekoan txikiagoak besteetan baino eragin txikiagoa izan zuen, ehuneko 1,5 puntu murriztu zen eta. Nahiz eta aldi berean 16tik 64 urtera arteko biztanleriaren bolumenak behera egin zuen, jarduera EAEko beste eskualde batzuetan baino neurri txikiagoan murrizteak langabeziak ere zertxobait gutxiago behera egitea ekarri zuen (Gasteizen, -% 28,9, eta Ezkerraldean, -% 21,3). Bi eskualde horietan, bereziki Ezkerraldean, langabeziak 2015etik 2017ra bitartean hein txikiagoan behera egin izanak zerikusia du okupazioaren igoerarekin, EAEko batezbestekoa baino gutxiago areagotu baitzen.

Gasteizen, langabezia txikiagoak den dinamika nabarmendu behar da, jarduera-tasen beherakadari jarraikiz, 2014-2015ean bertan handi samarra izan zen eta. Lerro hori Donostialdean ere deigarria da. Garai horretan ez bezala, bi eskualdeetako okupazioaren dinamikak hobera egin zuen 2015etik aurrera, argi eta garbi. Hartara, langabeziaren beherakada txikiak gertatu ziren 2014-2015ean, eta zifrak areagotu egin ziren 2015etik 2017ra bitartean.

Langabezia-zifrak Debabarrenean murriztu ziren gehien 2015etik 2017ra artean; zehazki, % 50,4 egin zuten behera. Kasu horretan, hala ere, jarduera-tasa ez zen horrenbeste txikiagoa; ehuneko 0,4 puntu besterik ez. Tolosa-Goierri eta Debagoiena eskualdeetan, okupazioa handitzeak eragin handia izan zuen garai horretan langabeziak behera egin zezan.

Aiara, ordea, beste muturrean dago. Bertako jarduera-tasa ehuneko 2,4 puntu txikiagoa zen, eta 16tik 64 urtera bitarteko biztanleriak ere beheranzko lerroa egiten du; hala eta guztiz ere, aldeko dinamika hori hautsi egiten da okupazioak behera egin zuelako 2015etik 2017ra bitartean. Ondorioz, langabeziaren jaitsiera erlatiboa txikiagoa izan zen EAEko gainerako eskualdeetan baino; zehazki, % 16,6koa.

Dinamika horretan, Bilbo ere beste salbuespen bat da. Eskualde-udalerrri hartan, jarduera-tasa % 71,9tik % 74,6ra pasatu zen, eta testuinguru horretan 16tik 64 urtera arteko biztanleria areagotu zenez gero, biztanleria osoaren bolumena ere nabarmen handitu zen (6.991 pertsona gehiago). Ez alferrik, EAEko eskualde guztien artean, bertan soilik gertatu zen 2015etik 2017ra bitarte. Aldi horretan, Bilboko okupazioak EAEko batezbestekoa baino neurri handiagoan egin zuen gora; alabaina, ez zen aski izan eskualde horretako langabezia zer handituko zen aurreikusteko (1.895 pertsona). Horixe da 2015etik 2017ra bitarte langabezia areagotu zen eskualde bakarra.



## 2. Langabezia-tasa nabarmen txikiagotu zen, Bilbon izan ezik.

### Tasak ia toki guztietan egin zuen behera.

Okupazioak gora egiten zuenez eta biztanleria aktiboaren bolumenaren presioak behera egiten zuenez, EAEko langabezia-tasak nabarmen txikiagotu ziren 2015etik 2017ra bitartean. EAE osoan, langabezia murriztu egin zen % 14,8tik % 11,2ra.

Lerroa beheranzkoa izan zen EAEko ia eskualde guztietan. Zehatz-mehatz, ehuneko 6,5 puntutik gorako beherakadak Eskuinaldean (% 18,3tik % 11,8ra) eta Debabarrenean (% 16,9tik % 9,2ra) gertatu ziren. Dena den, EAEko eskualde gehienetan nabarmen egin zuen behera langabeziak, ehuneko 4tik 6 puntura artean. Halaxe izan zen Gipuzkoako gainerako eskualdeetan (Debagoienean, % 11tik % 5,5era; Tolosa-Goierri, % 11,5etik % 6,6ra; eta Donostialdean, % 13,2tik % 9,3ra), Bizkaia Kostan (% 14,3tik % 8,4ra), Durangaldean (% 14,4tik % 9,2ra), eta Araban, Gasteizko Eskualdean (% 14,5etik % 10,6ra).

Ezkerraldean ere handi samarra izan da beherakada, baina gainerakoetan baino txikiagoa; zehazki, 3,2 puntukoa, % 17tik % 13,8). Aiarako beherakada 1,9 puntukoa izan zen, langabezia-tasa % 14,5etik % 12,6ra pasatu baitzen.

### 5. taula

#### 2015-2017 arteko langabeziaren aldaketa, eskualdeka. EAE. (Jarduera-tasa %-tan eta aldakuntza-tasak ehunekotan)

Eskualdea	2015	2017	2015-2017 aldakuntza (ehunekotan)
<b>Guztira</b>	<b>14,8</b>	<b>11,2</b>	<b>-3,7</b>
Gasteiz	14,5	10,6	-4,0
Aiaraldea	14,5	12,6	-1,9
Eskuinaldea	18,3	11,8	-6,5
Bilbao	15,1	15,7	0,5
Ezkerraldea	17,0	13,8	-3,2
Bizkaia-Kosta	14,3	8,4	-5,9
Durangaldea	14,4	9,2	-5,2
Donostialdea	13,2	9,3	-4,0
Tolosa-Goierri	11,5	6,6	-4,9
Debagoiena	11,1	5,5	-5,5
Debabarrena	16,9	9,2	-7,8

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

## **Langabezia Bilbon soilik handitu da**

Bilboko okupazioak eboluzio ona izan du. Hala ere, biztanleria aktiboaren bolumena asko handitu da, jarduerak gora egin du eta 16tik 64 urtera bitarteko biztanle gehiago daude; horrek guztiak okupazioaren gorakadak izan lezakeen eragina mugatu du. Azken biurtekoan, Bilbo izan da langabezia-tasa areagotu den EAeko eskualde bakarra. Hala, % 15,1etik % 15,7ra pasatu da 2015etik 2017ra artean.

### **3. Aldeak langabeziaren eragin erlatiboan**

Azkenaldiko dinamikei esker, langabezia-eraginaren polarizazioa txikiagoa da eskualdeka; hala ere, polarizazio honek euskal eskualdeetako egoeraren ezaugarri nagusi bat izaten jarraitzen du. Gipuzkoako Debagoiena eta Tolosa-Goierri eskualdeak dira egoera onenean daudenak, % 5eko atalasetik gertu baitaude berriz, % 5,5eko eta % 6,6ko tasekin, hurrenez hurren.

EAeko beste toki askotan ere tasa % 10etik beherakoa da. Horren barnean daude Gipuzkoako gainerako eskualdeak; adibidez, Debabarreneko eta Donostialdeko tasak % 9,2 eta % 9,3 dira. Bizkaian, Durangaldeko tasa bertsua da (% 9,2), eta Bizkaia Kostakoa zertxobait txikiagoa da (% 8,4). Araban, Gasteizko Eskualdea % 10eko atalasetik gertu dabil, baina gainditu egiten du oraindik (% 10,6).

Bestalde, Arabako Aiaraldean langabezia % 10eko atalasetik gorakoa da, argi eta garbi (% 12,6), baita Bilbo inguruko hiru eskualdeetan ere. Talde horretan, langabezia-tasarik txikiena Eskuinaldekoa da (% 11,8). Ezkerraldekoa hura baino nabarmen handiagoa da (% 13,8), eta Bilbo da 2017an % 15etik gorako langabezia zuen EAeko eskualde bakarra (% 15,7).

#### **Langabeziaren eragina azpieskualdeka.**


Azterketa azpieskualdeka egiten badugu, aldeak langabezian askoz nabarmenagoak dira. Hona hemen non dauden langabezia-ehuneko txikienak (% 7,5 baino gutxiago): Araban, Arabako kuadrillak eta Arabako Mendialdea; eta Gipuzkoan, Zarautz udalerria, Urola Kostako gainerakoa, Debagoieneko gainerakoa eta Goierri. Bizkaian, langabezia txikia izan da Markina-Ondarroan eta Eskuinaldeko gainerakoan.

Arabian, langabezia % 7,5etik % 10era artekoa izan da Gorbeialdean eta Lautadako gainerakoan. Gipuzkoan, talde horretan daude Hondarribia, Donostia, Eibar eta Arrasate udalerriak, eta Tolosaldea azpieskualdea, Debabarreneko gainerakoa eta Donostialdeko gainerakoa. Bizkaian, berriz, Basauri udalerria, eta Plentzia-Mungia, Gernika-Bermeo, Arratia-Nerbioi eta Durangaldeko gainerakoa azpieskualdeak.



Arabako, tartean geratu dira Gasteiz eta Arabako Errioxa zein kantauriar isurialdearen gainerakoa azpieskualdeak; izan ere, bertako tasa % 10etik gorakoa da, baina % 12,5etik beherakoa. Halaber, Gipuzkoako Errenteria udalerrria eta Bizkaiko Getxo, Galdakao eta Durango udalerrriak zein Ezkerraldeko gainerakoa ere tarte horretan daude.

### Langabezia-tasa 2017ean azpieskualdea. EAE



1.- Arabako bailarak	11.- Eskuinaldeko gainerakoa	21.- Erandio	31.- Eibar
2.- Arabako Lautadako gain.	12.- Barakaldo	22.- Durangaldeko gainerakoa	32.- Debagoiena
3.- Gasteiz	13.- Basauri	23.- Durango	33.- Arrasate
4.- Arabako mendialdea	14.- Bilbao	24.- Enkarterri	34.- Donostialdeko gainerakoa
5.- Arabako Errioxa	15.- Galdakao	25.- Gernika-Bermeo	35.- Errenteria
6.- Gorbeialdea	16.- Getxo	26.- Markina-Ondarroa	36.- Donostia
7.- Arabako Kantaurialdeko g.	17.- Leioa	27.- Plentzia-Mungia	37.- Goierri
8.- Audio	18.- Portugalete	28.- Hondarribia	38.- Tolosaldea
9.- Arratia-Nerbioi	19.- Santurtzi	29.- Irun	39.- Urola Kosta, gainerakoa
10.- Ezkerraldeko gainerakoa	20.- Sestao	30.- Debabarreneko gainerakoa	40.- Zarautz

Oharra: Honako udalerrri hauen zenbakia ez da mapan agertzen: Getxo, Leioa, Santurtzi, Portugalete, Sestao eta Basauri. Udalerrri horien eta gainerako azpieskualdeen datuak SC3 taulan ikus daitezke (60. orrialdea).

Langabeziak eragin handiena izan duen EAEko udalerrak Arabako Laudio eta Gipuzkoako Irun dira, % 12,5etik gorakoa baita. Langabezia handieneko gainerakoak Bizkaian daude: Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo, Erandio, Leioa eta Bilbo udalerrak, eta Enkarterri azpieskualdea. Talde horretan, langabezia % 15 baino handiagoa da Santurtzin eta Bilbon. LMEren barruan aztertu diren EAEko lurraldeen artean, Sestao da % 20ko langabezia-tasa oraindik ere gainditzen duen bakarra, % 20,8koa da eta.

## ESTADÍSTIKA ERANSKINA

---



## 1. Datu orokorrak eskualdeka

---

**C1. taula. 16-64 urteko biztanleria guztia, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
**(Datu absolutuak)**

Eskualdeak	2015	2017
	Guztira	Guztira
	Abs.	Abs.
Guztira	1.371.704	1.372.325
Gasteiz	179.279	178.573
Aiaraldea	27.205	26.957
Eskuinaldea	102.517	101.522
Bilbo	215.151	216.500
Ezkerraldea	245.599	243.577
Bizkaia-Kosta	82.005	82.275
Durungaldea	77.573	77.257
Donostialdea	299.132	301.468
Tolosa-Goierrri	71.264	72.286
Debagoiena	38.335	38.171
Debarrena	33.644	33.740

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**C2. taula. 16-64 urteko biztanleria aktiboa, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
**(Datu absolutuak)**

Eskualdeak	2015	2017
	Aktiboa	Aktiboa
	Abs.	Abs.
Guztira	1.042.697	1.025.697
Gasteiz	137.150	133.915
Aiaraldea	20.676	19.845
Eskuinaldea	79.783	76.245
Bilbo	154.605	161.595
Ezkerraldea	185.795	180.691
Bizkaia-Kosta	63.517	61.695
Durungaldea	62.150	59.022
Donostialdea	227.834	223.672
Tolosa-Goierrri	55.064	54.213
Debagoiena	29.230	28.940
Debarrena	26.893	25.865

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda



**C3. taula. 16-64 urteko biztanleriaren jarduera-tasa, eskualdeen arabera**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

Eskualdeak	2015	2017
	Tasa	Tasa
	%-tan	%-tan
Guztira	76,0	74,7
Gasteiz	76,5	75,0
Aiaraldea	76,0	73,6
Eskuinaldea	77,8	75,1
Bilbo	71,9	74,6
Ezkerraldea	75,6	74,2
Bizkaia-Kosta	77,5	75,0
Durungaldea	80,1	76,4
Donostialdea	76,2	74,2
Tolosa-Goierri	77,3	75,0
Debagoiena	76,2	75,8
Debarrena	79,9	76,7

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**C4. taula. 16-64 urteko biztanleria landuna, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (Datu absolutuak)

Eskualdeak	2015	2017
	Landuna	Landuna
	Abs.	Abs.
Guztira	887.864	910.965
Gasteiz	117.227	119.755
Aiaraldea	17.669	17.337
Eskuinaldea	65.172	67.240
Bilbo	131.202	136.298
Ezkerraldea	154.196	155.817
Bizkaia-Kosta	54.413	56.511
Durungaldea	53.219	53.611
Donostialdea	197.689	202.928
Tolosa-Goierri	48.739	50.638
Debagoiena	26.000	27.337
Debarrena	22.338	23.492

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**C5. taula. 16-64 urteko biztanleriaren okupazio-koefizientea, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

Eskualdeak	2015	2017
	Koef.	Koef.
	%-tan	%-tan
Guztira	64,7	66,4
Gasteiz	65,4	67,1
Aiaraldea	64,9	64,3
Eskuinaldea	63,6	66,2
Bilbo	61,0	63,0
Ezkerraldea	62,8	64,0
Bizkaia-Kosta	66,4	68,7
Durungaldea	68,6	69,4
Donostialdea	66,1	67,3
Tolosa-Goierrri	68,4	70,1
Debagoiena	67,8	71,6
Debarrena	66,4	69,6

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**C6. taula. 16-64 urteko biztanleria langabea, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (Datu absolutuak)

Eskualdeak	2015	2017
	Langabea	Langabea
	Abs.	Abs.
Guztira	154.832	114.732
Gasteiz	19.923	14.160
Aiaraldea	3.007	2.507
Eskuinaldea	14.611	9.005
Bilbo	23.403	25.298
Ezkerraldea	31.599	24.873
Bizkaia-Kosta	9.104	5.184
Durungaldea	8.931	5.411
Donostialdea	30.145	20.744
Tolosa-Goierrri	6.325	3.575
Debagoiena	3.230	1.602
Debarrena	4.555	2.373

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda





**C7. taula. 16-64 urteko biztanleriaren langabezia-tasa, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

Eskualdeak	2015	2017
	Tasa	Tasa
	%-tan	%-tan
Guztira	14,8	11,2
Gasteiz	14,5	10,6
Aiaraldea	14,5	12,6
Eskuinaldea	18,3	11,8
Bilbo	15,1	15,7
Ezkerraldea	17,0	13,8
Bizkaia-Kosta	14,3	8,4
Durungaldea	14,4	9,2
Donostialdea	13,2	9,3
Tolosa-Goierri	11,5	6,6
Debagoiena	11,1	5,5
Debarrena	16,9	9,2

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**C8. taula. 16-64 urteko biztanleria langabearen ehunekoa, eskualdeen arabera**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

Eskualdeak	2015	2017
	Proportzioa	Proportzioa
	%-tan	%-tan
Guztira	11,3	8,4
Gasteiz	11,1	7,9
Aiaraldea	11,1	9,3
Eskuinaldea	14,3	8,9
Bilbo	10,9	11,7
Ezkerraldea	12,9	10,2
Bizkaia-Kosta	11,1	6,3
Durungaldea	11,5	7,0
Donostialdea	10,1	6,9
Tolosa-Goierri	8,9	4,9
Debagoiena	8,4	4,2
Debarrena	13,5	7,0

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda



## **2. Gizonezkoen datuak eskualdeen arabera**

---

**H1. taula. 16-64 urteko gizonezkoak, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
**(Datu absolutuak)**

Eskualdeak	2015	2017
	Guztira	Guztira
	Abs.	Abs.
Guztira	687.467	684.935
Gasteiz	90.234	89.276
Aiaraldea	13.870	13.775
Eskuinaldea	50.121	49.459
Bilbo	105.073	105.337
Ezkerraldea	123.471	122.119
Bizkaia-Kosta	41.735	41.397
Durungaldea	39.441	39.023
Donostialdea	149.552	150.476
Tolosa-Goierrri	36.820	37.182
Debagoiena	19.903	19.646
Debarrena	17.247	17.245

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**H2. taula. 16-64 urteko gizonezko aktiboak, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
**(Datu absolutuak)**

Eskualdeak	2015	2017
	Aktiboa	Aktiboa
	Abs.	Abs.
Guztira	552.060	539.587
Gasteiz	72.502	72.182
Aiaraldea	11.198	11.000
Eskuinaldea	40.404	38.876
Bilbo	80.475	82.438
Ezkerraldea	99.378	94.928
Bizkaia-Kosta	33.197	31.976
Durungaldea	33.931	31.753
Donostialdea	120.427	116.704
Tolosa-Goierrri	29.882	30.608
Debagoiena	16.149	15.115
Debarrena	14.517	14.005

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda



**H3. taula. 16-64 urteko gizonezkoen jarduera-tasa, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

	2015	2017
	Tasa	Tasa
Eskualdeak	%-tan	%-tan
Guztira	80,3	78,8
Gasteiz	80,3	80,9
Aiaraldea	80,7	79,9
Eskuinaldea	80,6	78,6
Bilbo	76,6	78,3
Ezkerraldea	80,5	77,7
Bizkaia-Kosta	79,5	77,2
Durangaldea	86,0	81,4
Donostialdea	80,5	77,6
Tolosa-Goierri	81,2	82,3
Debagoiena	81,1	76,9
Debarrena	84,2	81,2

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**H4. taula. 16-64 urteko gizonezko landunak, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (Datu absolutuak)

	2015	2017
	Landuna	Landuna
Eskualdeak	Abs.	Abs.
Guztira	468.009	479.595
Gasteiz	60.963	65.284
Aiaraldea	9.697	9.770
Eskuinaldea	33.740	34.442
Bilbo	67.694	69.372
Ezkerraldea	82.356	81.639
Bizkaia-Kosta	28.538	29.426
Durangaldea	28.266	28.389
Donostialdea	103.106	105.379
Tolosa-Goierri	27.042	28.724
Debagoiena	14.282	14.257
Debarrena	12.326	12.913

Iturria: EOE, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**H5. taula. 16-64 urteko gizonezkoen okupazio-koefizientea, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

Eskualdeak	2015	2017
	Koef.	Koef.
	%-tan	%-tan
Guztira	68,1	70,0
Gasteiz	67,6	73,1
Aiaraldea	69,9	70,9
Eskuinaldea	67,3	69,6
Bilbo	64,4	65,9
Ezkerraldea	66,7	66,9
Bizkaia-Kosta	68,4	71,1
Durungaldea	71,7	72,7
Donostialdea	68,9	70,0
Tolosa-Goierrri	73,4	77,3
Debagoiena	71,8	72,6
Debarrena	71,5	74,9

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda

**H6. taula. 16-64 urteko gizonezko langabeak, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (Datu absolutuak)

Eskualdeak	2015	2017
	Langabea	Langabea
	Abs.	Abs.
Guztira	84.051	59.992
Gasteiz	11.539	6.898
Aiaraldea	1.501	1.230
Eskuinaldea	6.664	4.434
Bilbo	12.781	13.066
Ezkerraldea	17.022	13.289
Bizkaia-Kosta	4.659	2.550
Durungaldea	5.666	3.365
Donostialdea	17.321	11.326
Tolosa-Goierrri	2.841	1.885
Debagoiena	1.868	858
Debarrena	2.190	1.092

Iturria: EOE, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila. Lan Merkatuaren Errolda



**H7. taula. 16-64 urteko gizonezkoen langabezia-tasa, eskualdeen arabera.**  
**Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015-2017.**  
 (%-tan)

